

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Aralarko Aingerua Nafarroako Jauregian izan da

Nafarroako Lehendakariak, Uxue Barkosek, irudia jaso du Foru Jauregiko atarian, Ana Olló, Ana Herrera eta Isabel Elizalde kontseilariekin batera

Asteazkena, 2018.eko apirilak 11

Gaur goizean, Aralarko San Migelen irudia etorri da bisitan Nafarroako Foru Jauregira, aste honetan Foru Komunitateko erakundeetan eta beste entitate batzuetan egiten ari den ibilbidearen barruan.

Irudia 11:00etan iritsi da Foru Jauregira, San Nikolas elizako apaiz Cesar Magañaeren eskuetan, Aralarko santutegiko kapilau Mikel Garciandia lagun zuela.

Nafarroako Lehendakariak, Uxue Barkosek, jaso du atarian, eta han ziren, halaber, Ana Olló, Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako kontseilaria; Ana Herrera, Kultura, Kirol eta Gazteriako kontseilaria; Isabel Elizalde, Landa Garapeneko, Toki Administrazioeko eta Ingurumeneko kontseilaria; bai eta ehunka herritar eta langile publiko ere.

Irudia jaso ondoren, Jauregiko kaperara joan dira. Han, San Nikolas elizako apaiz Cesar Magañaek eukaristia eman du, Aralarko santutegiko kapilau Mikel Garciandia lagun duta. Katedraleko Musika Kaperako ganbera-abesbatzak ere hartu du parte, Aurelio Sagasetak zuzenduta, Julián Ayesa organo-jolearekin.

Musika-egitarauan, obra hauek

zeuden, besteak beste: Alme Pater mezako Kyrie eleison; Sancte Michael errespontsu-salmoa; W. A. Mozarten Alleluia, 4 ahotsetara; D. Zipoli-ren Celesti urbs, 3 ahotsetara; "Kanta dezagun" sanctusa; Gure Aita; C. Casciolini-ren Panis angelicus, 3 ahotsetara; J. García Salazarren Regina caeli, 4 ahotsetara; eta Mikel, Mikel guria eta Agur Mikel Aingeru koplak herrikoiak.



Barkos Lehendakariak Aralarko Aingerua jaso du.



Musika Kaperaren interpretazioa

Ospakizuna amaitu ondoren, agur esan zaio irudiari Nafarroako Jauregiko ate nagusian, Nafarroako Gobernuko Tronpeta eta Tinbalen Bandak interpretatutako Nafarroako Ereserkia entzunez.